

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

338 - 2025eko IRAILA



JAI GIROAN,
UDARA BEROAN!



Gehien erakartzen nauena?

Ezer ziurtzat ez jotzea.



Nafarroan...
Gozatu, partekatu eta
errespetatu



#PrebentzioNeurriakErabili
#PresiorikEtaGezurrikEz
#EtiketarikGabekoMaitasuna

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



NAVARRA ✦ **NAFARROA**

Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua

· MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:

Maillope Kultur Elkartea.

L.G.: NA 719/93

Maillopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

issuu.com/maillopealdizkaria

· ERREDAKZIOA:

Ainhoa Beraza, Aitor Irastortza, Arantxa Mikeo, Ane Ubegun, Irati Moreno, Mikel Hernandorena eta Xanti Begiristain.

· ARGAZKIAK:

Ainhoa Beraza, Ainhoa Mitxaus, Araxes Herri Kirol Taldea, Asier Arsuaga, Hatortxu Rock, Ibai Soroa, Juan Antonio Garaikoetxea, Julen Buldain, Kirolmank, Leire Lopetegi, Lekunberriko Udala, Naiara Juanena, Nahiane Ijurko, Noa Rios, Pello Azpirotz, Plazaola Partzuergo Turistikoa, Triku Trail, Uxue Bereziartua.

· PUBLIZITATEA:

Irati Moreno - 660 476 041

info@maillope.eus

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

02

POSTONTZIA

04

KUXKUXEAN Zorion agurrak

07

MAITE DITUT MAITE
"Lekunberritik Atume tontorrera"

8

ERREPORTAJEA

Maillope Aldizkaria eta Aralar Irratia aro berri baten atarian daude.

Maillope Zuzendaritza Taldeko ki-deak eta Araitz, Betelu, Larraun eta Lekunberriko udal zinegotziak



12

BATZARRE

14

ELKARRIZKETA

"Zikiro-jatea da Errazkingo tradizio garrantzitsuenetako bat"
Errazkingo zikiro-jatearen antolatzaileak



19

KULTURA

22

KIROLA

"Judo ikastaroetan errespetua uztartzen dugu"
Asier Murillo Martinez



28

PLAZATIK PLAZARA

"Agur, Hatortxu!"
Arkaitz Zapata Otxandorena eta Naiara Juanena Ayestaran

31

AGENDA

Oihan Eskudero

Abuztuaren 7an, 6 urte.
Zorionak, eta urte askoz,
etxeko gizon txikiari!
Segi beti bezain alai eta
irribarretsu urteak betetzen.
Musu handi bat guztion
partetik!

**Alaitz Leoz Urbizu**

Abuztuaren 16an, 7 urte.
Zorionak politte! Urte
zorionsua opa dizugu.
Eskerrik asko denagatik.
Musu handi bat etxekoan
partez.

**Aimar Ochoa Cueva**

Abuztuaren 30ean, 8 urte.
Zorionak, mutill! Espero
dut orain bezain zorionsu
izaten jarraitzea.
Ongi pasa zure eguna
maite zaituzten guztiekin!
Musu bat amaren
partetik, maite zaitut!

Unax Elordi Saralegui

Irailaren 14ean, 3 urte.
Zorionak eta urte
askotako pottoko!
Musu handi bat familia
guztiaren partez!



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatz iezaguzu Whatsapp bidez **660 476 041** telefonora
hilaren 20a baino lehen.

**Lagunasesoría S.L.**

Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

Bar Ainhua

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin
eta bertan eskuz egindako madalenak,
erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.



Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com



ABEREI KALTE EGITEN DIEN "MINGAIN URDINA" GAITZA AGERTU DA NAFARROAN

Urdazubiko (Nafarroa) "mingain urdina" gaixotasunaren fokua hautemateak kezka sortu du gure eskualdeko abeltzainen artean. Gaixotasun birikoa, Culicoides eltxoek transmititzen dute, eta ardi-aziendei larri eragiten die. Behiek eta ahuntzek, berriz, birusa sintomarik gabe izan dezakete. Hala ere, ez da arriskutsua gizakientzat. Nafarroa nahitaezko txertaketa-eremu izendatu dute Oartzunen (Gipuzkoa) kasu bat baieztatu ondoren. Araitx, Betelu, Larraun eta Lekunberriko abeltzainak gaixotasunaren aurkako txerto-dosiaren zain daude.



LEKUNBERRIKO UDALAK FURGONETA ELEKTRIKO BAT EROSI DU

Horren kostua 8.530,50€ izan da eta dagoeneko egoera txarrean zegoen gasoliozko furgoneta zirkulaziotik aterako du. Horrela Udalak 2. ibilgailu elektrikoa erosi du brigadarentzat, mugikortasun elektriko eta jasangarriaren aldeko apustua eginez.

Izan ere, airea kutsatzen duten CO2 isuriak murriztearekin batera, helburua burujabeak izatea da, horregatik autoek behar duten energia elektrikoa frontoiko plaketatik hornitzea da helburua.



PLAZOLA KIROLGUNEAN MATRIKULA DOAN IRAILAREN 1ETIK 30ERA

Ikasturte berria berehala hasiko da eta Kirolmank Araitx, Areso, Betelu, Larraun eta Lekunberriko Kirol Mankomunitateak liburuxka berria aurkeztu du.


Bilatu hurrengo esteka, begirada bat bota eta gustukoak dituzun ekintzak aukeratu irailaren izen emateko: <https://labur.eus/9as8prmk>

Informazio gehiagorako Plazaola Kiroldegian eta Kirol Mankomunitatean.

► Nahiane Ijurko Sarasa (Betelu)



*Ordutegiak finkatuz goaz
festa lasaituz udaran
errutina hartu behar dira
ta motxila jarri altzoan
bide berriak aurrean
gau politak atzean
heldu zaigu aldaketa
animo eta indarra denoi
ziur beharko da eta.*



Doinua: Iparragirre abila dela. **Hurrengoa:** Izarne Eskamendi Goikoetxea (Betelu).

ESPAINIAKO HIZKUNTZA POLITIKA: LOTUA ETA ONGI LOTUA

Euskararen hizkuntza-politikan jauzi bat eman beharra mehatxutzat jotzen dute estatuko eragile politiko guztiek; ez daude prest onartzeko euskal komunitatearen izatea eta bere garapen eskubidea. Indar horientzat onartezinek dira euskararen ezagutza edota erabilpena areagotzeko ahaleginak, epeka eta mailakatua izanik ere.

Jarrera supremazista bat dago oinarrian, zeinaren arabera gaztelaniaren (edo frantsesaren) inposaketa normala eta onuragarria den, baina euskararen berreskurapena borondatezkoa eta ez-orokortua izan behar duen, izatekotan, eta euskarak eta euskal komunitateak ere zapalduta segitu behar duten, Espainia eta Frantziaren ahalegin genozidak (ikus Lemkin) otzan onartuz. Orain arte Estatu biok burututako txikizioari buruz ez dago onarpenik, ebaluaziorik eta are gutxiago damurik. Aitzitik, euskara erabat desagerraraztea dute helburu eta erdara bion nagusitasun eta "kosmopolitismoaren" uste supremazistak dira beren gurutzadaren motorrak ezker-eskuin.

Hizkuntza-politika demokratiko batek euskal hiztunen komunitatearen berrosatzea eta euskara Euskal Herrian nonahi erabiltzeko eskubidea bermatu behar ditu. Oraindik ere gure eskubide oinarritzkoenak berma daitezzen eskatzen aritu behar izateak, zapaltzen gaituzten estatuen kalitate demokratiko urria agerian jartzen du. Mendetako zapalkuntzaren ondoriozko egoera soziolinguistikoa sabaitzat ezarri nahi izateak, argi hitz egiten du estatu "demokratiko" bi hauen egiazko izaeraz.

Arazoak sortu dira, erkidego euskaldunak, apurka-apurka, Espainiak eta Frantziak ezarritako bazterketari eta gutxiespenari ihes egin nahi izan dienean. Ikastolen aurkako erasoak, sindikatu eta epaile euskarafoboak, PSOE, PP eta enparauen diskurtso eta ekimen euskarafoboak... Enplegu publikoa da euren

obsesioetako bat. Nahiz eta euskal sistema publikoetan lanpostuen %100erako derrigorrezko hizkuntzak espainola edo frantsesa izan, eta euskara maila jakin baten eskakizunak (batetik laura) EAEko lanpostu publikoen % 60 ingururi soilik eragiten dien (Nafarroan % 3ri eta Iparraldean %0ri), euskararen inposaketa-salaketak etengabeak dira indar estatalista guztien aldetik.

PSOEk, PPK, Voxek edo Estatuko ezkerak, horiek guziek uste dute euskal komunitateak EZ lukeela inola ere gehiago hazi behar; onenean gehiago hedatu gabe "indartu" beharko litzatekeela, borondatea oinarri beti... izan ere, hizkuntzaren inposaketaren monopolioa, indarkeriarena bezala, Espainiako eta Frantziako estatuek baitute. Gainerako guztia "irreal", "inposatzailea", "boluntarista"... litzateke. Horretaz guztiaz "intelektual-klase progreak" ohartarazten gaitu gainera, harrapazank!

Badugu garaia hizkuntza politika modu errealista eta anbiziotsuan birpentsatzeko, baita euskal komunitatearen biziraupena bermatzeko ere. Horretarako errealistena independentziarantz aurrera egitea da, etorkizunari itxaropenez begiratzeko aukera emango ligukeen formula posible bakarra baita, Espainia eta Frantzia kolonialista sendaezinek dakarkiguten zama astuna gainetik kenduta.

Juan Aleman
(Euskaltzaleon Foroa)

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

**TAXI
SOROA**
609 168 217
Bederatzi plaza


CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxe: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com



SOTIL GARAJEA

BETELU

948 513 007
sotilgarajea@gmail.com


ekin
rotulación
948 85 32 79

SAN MIGUEL
Taberna-jatetxea
Arribe
948 51 31 34

Hurrengoa:

Garazi Moreno Blas (Aldatz)



**Noa Rios Gaztelumendi
(Lekunberri)**

Zergatik aukeratu dut?

Ibilbide hau egitea erabaki dut ez daukalako zailtasun handirik, baina batez ere goian ikusi daitekeen ikuspegiagatik (Larraun ibarraren zati handi bat, Aralar mendilerroa...).

maite ditut maite gure bazterrak

Lekunberritik Atume tontorrera

Ibilbidea: joan-etorria

Distantzia: 5,97 km

Desnibela: 290 m

Zailtasuna: ertaina

Bidea:

- 1 Lekunberriko Hilerritik hasiko gara. Tanatorio albotik, dena zuzen jarraituko dugu zubia zeharkatu arte.
- 2 Ondoren, Plazaolako bidera igoko gara (Leitza aldera).
- 3 Plazaolako bidea jarraituko dugu (2,5 km inguru) bide gurutzerara iritsi arte. Bertan beheraka jaitsiko gara errepiderantz. Errepidera iristen garenean, ezkerreko aldetik goraka jarraituko dugu (Uitzirantz).
- 4 Zubia ikusten dugunean bertatik pasako gara eta bidexka jarraituz 200 metrotara ezkerreko bidea hartuko dugu. Lurrean dagoen enbor handi bat ikusterakoan, ezkerretara joango gara, beste behin.
- 5 Azkenik, aldapa bat igo eta Atume tontorrera iritsiko gara.

7



●● Mailope Zuzendaritza Taldeko kideak: Ainhoa Beraza, Bernar Azpirotz, Ander Elizalde, Asier Arsuaga (Araizko udal zinegotzia), Igor Otermin (Beteluko udal zinegotzia), Joseba Xabier Artzeluts (Larraungo udal zinegotzia) eta Mikel Betelu (Lekunberriko udal zinegotzia).

Mailope Aldizkaria eta Aralar Irratia aro berri baten atarian daude



Asier Arsuaga (Araizko udal zinegotzia), Joseba Xabier Artzeluts (Larraungo udal zinegotzia) eta Mikel Betelu (Lekunberriko udal zinegotzia).

Mailope aldizkaria eta Aralar irratia eraldatze prozesuan hasi dira. Herritarrei begira eta profesionaltasun-irizpideak ardatz hartuta, bide berri bati ekin diote, aldizkaria eta Aralar irratia elkarlanean garatuz. Tokiko komunikabide sendo, dinamiko eta sakonago bat eskaini nahi dute, kalitatezko informazioa lantzeko eta komunitatearen parte-hartzea sustatzeko.

8

Tokikom komunikazio-kooperatibaren laguntzarekin, eta Araitz, Betelu, Larraun eta Lekunberriko udalen babesarekin, komunikazio-eredu berri bat sortuko da Lekunberri, Larraun, Betelu eta Araitzen. Horrek, kazetaritzaren irizpide profesionalak uztartuko ditu, eta aldizkariak zein irratiak itxura eta funtzionamendu berritua-ekin jardungo dute aurrerantzean.

Proiektuaren garapena hausnarketa sakona izaten ari da

Prozesuaren lehen urrats gisa, bi bilera ireki egin ziren Beteluko udal-tertxean, maiatzaren 20an eta 27an. Kazetaritzako adituak, kolaboratzaileak, udalak eta erabiltzaileak bildu ziren,

Mailope proiektu komunikatibo berriaren egitura, eta beharrak zehazteko.

Mailopeko zuzendaritza taldeko Ander Elizalde azaldu duenez, "Aralar irratiak Martin Juanena kazetaria jubilatzeaz dagoenez, aldaketa egiteko momentu egokia dela uste dugu. Horrela, proiektu berri honek, sozialki eta ekonomikoki oinarri sendoa-koa eskainiko dio Mailoperi".

Ainhoa Berazak azken urteotan egin-dako bilakaera azpimarratu du, "due-la bi-hiru urte Mailopek paperean zuen indarra. Digitala sustatzen hasi ginenean, ikus-entzunezkoen be-harra agerian geratu zen. Orain, papera, digitala eta ikus-entzunezkoak bate-

ratu nahi ditugu."

Bernar Azpirotzen hitzetan, herritarren parte-hartzea indartzea da hel-buru nagusietako bat, "herritarrek proiektuaren parte sentitzea nahi dugu. Proiektu hau denona da, eta askok badakite, baina elkarlan handi-goia lortu nahi dugu, bai eragileekin, baita herritarrekin ere. Horretarako, bi langile izatea ezinbestekoa da dena saretzen eta sendotzen lagun-tzeko".

Mailope Proiektu Komunikatiboak hainbat onura sortuko ditu

Prozesuan, Tokikomek Mailoperi eskaini dion laguntza ere aipagarria izan da. Euskal Herri osoko tokiko



Ibarreko biztanleekin egin zen lehenengo bilera.

hedabideen sarea izanik, haien ja-kinduriak partekatu dituzte. Elizalde berak dioenez, "Tokikomen laguntza eskertzekoa da. Gai potoloetan haien esperientzia eta orientazioa izan ditugu. Horrek segurtasuna emateaz gain, norabide bat zehaztu digu, guk ere ikusten baitugu nolako dimentsioa hartzen ari den proiektua". Berazaren ustez, boluntariotzatik profesionalizaziora igarotzea ezinbesteko urratsa da, "boluntarioen lana eskergarria da, baina mugatua. Orain proiektuak hartu duen bolu-

menarekin, ezinbestekoa da langile profesionalak izatea. Hedabideen kudeaketaren baitan sortzen den lana handia da, eta ondorioz, horretan espresuki arituko diren langileak behar dira".

Eskualdeko udalek ere aktiboki parte hartu dute prozesuan. Joseba Xabier Artzelutsek, Larraungo zinegotziak, bileretan izandako parte-hartzea goraipatu du. "Herriarren parte-hartzea indartsua izan zen. Erabiltzaileak eta profesionalak gonbidatu ziren, eta sortutako tal-

dearen dinamika oso interesgarria izan zen. Saio emankorrak izan zirela uste dut."

Mikel Beteluk, Lekunberriko zinegotziak, tokiko komunikabideek herri kohesioan duten eragina azpimarratu du, "tokiko komunikabide sendo bat izatea ezinbestekoa da. Herri kohesioa lantzen du, eta baloreak transmititzeko ere balio du: parekidetasuna, pluraltasuna... Mailoek herriko jendea ikustarazten du".

Igor Oterminen, Beteluko zinegotziaren hitzetan, "komunikabide bakarrarekin, denbora ez da galtzen, eta informazio berdina toki askotan errepikatu beharrean, komunikabide bakar batera egongo da. Agenda bateratu bat izateak ere garrantzia dauka: gaur egun Larraun-Lekunberri alde batetik daude eta Araitz-Betelu bestetik, eta askotan ez dakigu ekitaldiak noiz egiten diren bata eta bestean. Kanal bakar batek bata besteari ez zapaltzea eragingo du, eta jendeari mugitzeko aukera gehiago emango dizkio".

Azkenik, Asier Arsuagak, Araizko zinegotziak euskararen garrantzia ekarri du gogora, "gure erronka komunikabide hau euskaraz mantentzea da. Tabernetan erdarazko aldizkariak besterik ez ditugu ikusten. Mailoek hutsune hori bete dezake, eta komunitatea euskara erabiltzera bultzatu".

IORTIA CLINICA DENTAL · HORTZ KLINIKA

Vanessa de Abreu Perdomo · Odontologoa Kol. Zk. 740

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsasu: 948 467 603 · 667 661 769


ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

Ile-apaindegia
Estetika
Presoterapia
Podologoa
Laser-depilazioa eta
depilazio elektrikoa
Dietista-nutrizionista
Mikropigmentazioa ezpainenetan
Mikroblading bekainenetan



Alaitz Artozabal, Tokikomeko zuzendaria
Mailope aldiakariaren datuak azalduz.

Etorkizun oparoa espero da

Udal ordezkarien artean, Mailope eta Aralar irratia ezinbestekoak dira komunitatearentzat. Artzelutsek azpimarratu duenez, "gaur egun informazioa mundu osotik heltzen zaigu, baina gutxien jakiten dugun informazioa etxekoa izaten da. Mailope bezalako komunikabideek hurbileko informazioa berreskuratzeko balio dute".

Betelu ere iritzi berekoa da, "Mailopek eta Aralar irratia aukera ematen dute herritarrei gertuko komunikazio-atari bat edukitzeko, nahi denean irekitzeko".

Arsuagak, berriz, proiektuaren etorkizunari begira espero duen garrantzia azaldu du, "orain bada garaia bi komunikabideak elkartzeko; espero dut proiektu honek herritarren parte-hartzea sustatzea eta komunitatean elkarlana handitzea. Herritarrei eta eragileei benetako erabilgarritasuna ematea espero dut, eta proiektua etorkizunean ere mantentzea".

Amaitzeko, Oterminek eskualdeko herrien arteko batasuna azpimarratu du, "komunikabide bakar batek argi uzten du nora jo behar dugun informazioa bilatzeko. Agenda bateratuak, gainera, ez du utziko bata eta bestea zapaltzen; jendea aukera gehiago emango dizkio mugitzeko. Horrek bi ibarren arteko lotura sendotuko du".

Beraz, Mailoperen eta Aralar irratia-
ren etapa berriak hiru ardatz izango ditu: profesionalizazioa, komunitatearen parte-hartzea eta euskararen sustapena. Aldizkariak bere nortasuna mantenduko du, baina atal be-

rriak eta diseinu berriak izango ditu; albiste laburrak, irratian eta webgunean jorratuko dira (ahozko elkarrizketak, ikus-entzunezkoak, web orrialdeko albiste garatuagoak...), formatu berriei lekua eginez (pape-reko egitura eta eduki profesionala-goak...).

Mailopeko zuzendaritzak adierazi duenez, "denok nahiko genuke eskualdean erreferentziatzeko proiektua izatea. Jendeak etxeko aldiakaria dela sentitzea, eta webgunea, irratia eta sare sozialak kontsumitzea. Ilusioz gaude, indartzen, eta gogo handiz proiektua garatzen. Mailopek aspaldidanik ikusten zuen behar hori, eta orain da momentua".



Ibarreko biztanleekin egin zen bigarren bilera.

aseguru gintza XXI

ASEGURU AHOLKULARIAK

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

► aseguruak@aseguruak.eus

► 943 65 22 20

► Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa

HOSTAL BETELU

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Erreserbak:
948 51 30 26 - 663 97 67 09

ALIPROX
Lekunberri
janaridenda

hamabostaldi
eskaintza bereziak

OTXOTORENA
okindegia

ARRIBE

ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32



Euskara praktikatu nahi duzu? Jende berria ezagutu nahi duzu?

Euskaraz hitz egin giro atseguinean, zuk aukeratu noiz eta nola. Mintzakidek hamaika aukera eskaintzen dizkizu: tailerrak, tangoak, emanaldiak, mintzodromoak... Oso erraza da eta gainera doan!

Izena emateko edo informazio gehiago nahi baduzu, harremanetan jarri:

Larraungo AEK
larraun@aeek.eus
607622102

animatu!



11



POSTONTZIA

- ✓ Zein gairi buruzko artikulua irakurtzea gustatuko litzaizuke Mailopen?
 - ✓ Zure herrian edo talde eragilean datorren hilabeterako albistiren bat ba al duzue?
- Bidali zure proposamena Mailopeko erredakzio taldera:
660 476 041 telefonora deituz edo Whatsapp bidez idatziz.



PLAZAOLA-MENDIALDEA EZAGUTU

Uda honetan, *Plazaola-Mendialdea Ezagutu* programan, jarduera bereziak eskainiko dituzte. Natura, ondarea eta parte-hartze komunitarioa uztartzen dituzten esperientzia jasangarri eta hezitzaileak izango dira.

Alde batetik, bisita gidatuak, tailerrak, ibaiaren garbiketa, eta beste ekintza interesgarri ugari antolatu dituzte.

Bestetik, Argazki Lehiaketa abiarazi dute. Programa osoan zehar parte hartu dezakezu, edozein jardueretan ateratako argazkiak **erreserbak.plazaolamendialdea@gmail.com** helbide elektronikora bidaliz.

Informazio gehiago nahi baduzu, deitu 948 507204 zenbakira, edo sartu **www.plazaola.eus** web orrialdean.



ARAIZKO KABLEAREN EGUNA IRAILAREN 20AN OSPATUKO DUTE


Goizeko 10:30ean Gaintzatik abiatuko dira oinez parte-hartzaileak eta bisitariak Zezelainera, Kablearen Behatokia dagoen tokira. Bertan erakutsiko dute garai batean belarrak Malloan nola egiten ziren eta belar burusiak nola garraiatzen zituzten kable sistema erabiliz.


Ondoren, jaia berriro Gaintzara itzuliko da, eta elizaren atrioan jarriko duten tabernan jan-edanerako aukera izango da. Egunari amaiera emateko, bazkari herrikoia prestatuko dute Gaintzako Sonbelu Elkarteak. Bazkarirako txartelak aldeztu aurretik erosi behar dira Arribeko Surtidorean: haurrentzako 12 euro eta helduentzako 20 euro.

Antolatzaileek ibilgailuz igotzeko aukera ere eskainiko dute, oinez igo ezin dutenentzako. Euskarazko azalpenak jarraitu ezin dituztenei zuzenduta berriz, aldibereko itzulpen zerbitzua egongo da **t.me/araitzirratria** Telegram kanala erabiliz. Horretarako mugikorra eta kaskoak beharko dira.

BETELUKO UDALETXEAN HAINBAT GELA BERRITUKO DITUZTE

Beteluko Udaletxean lehen solairuko hainbat gela berritzen ari dira, espazioak hobetu eta suteen aurkako segurtasuna indartzeko. Idazkariaren bulegoetan, 22 m² inguruko bi gela artean, ate bat jarri dute. Halaber, sabaien altuera jaitsi eta suaren aurkako pladurrekin estali dute. Horrez gain, objektuak eta materiala gordetzeko biltoki txiki bat berritzen ari dira, baita 45 m²-ko bilera gela eta 75 m²-ko kirol jarduerak egiteko gela ere. Obrak pixkanaka egingo dituzte, urtero, eraikinaren zaharberritzea progresioan bultzatuz.





► “URTEETATIK HARATAGO” ARGAZKI ERAKUSKETA IKUSI NAHI DUZU?

“Hemen, aurpegi bakoitza mundu bat da; begirada bakoitza, istorio bat; eta irribarre bakoitza, denboraz harago doan ondare bat”, adierazi dute antolatzaileek.

Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak argazki erakusketa bat antolatu du komunitateko adineko pertsonak ikusarazteko eta baloratzeko. Erakusketak gizartearen duen funtsezko zeregina nabarmendu nahi du, esperientzian jakituria eta edertasuna atzematen duten irudi hunkigarrien bidez.

Argazki bakoitzak kontatzea merezi duten bizitzako istorioak, une baliotsuak eta legatuak islatzen ditu; eta lehen edizio honetan, inguruko Etxez Etxeko Arreta Zerbitzuko erabiltzaileek parte hartu dute.

Irailaren erdialdera arte egongo da ikusgai Lekunberri eta Larraungo Osasun Etxean.

IBARBERRI IKASTETXEKO PORTXEAREN ERAIKUNTZA ETA 2. SOLAIRUKO LUR ZORUAK KONPONTZEN ARI DIRA

Ikastetxeko bigarren solairuko 776m² lur zorua egoera kaskarrean zegoen, eta azken urteetan izorratu eta altxatu egin da hainbat lekutan. Portxeak berriz eguraldi txarren aurrean babesa eskaintzea izango du helburu. Lur zoruaran lanak 44.000€ko aurrekontua du eta portxeak 90.800,55€. Bi inbertsio hauek Lekunberri eta Larraungo Udalen arteko elkarlanaka bultzatu ditu. Gainera, Nafarroako Gobernuaren finantzaketa dute eta ikasturte hasierarako bukatuta egongo dira. zen, eta testuinguruen artean behar ugari azpimarratu zituzten.



► ASTITZ ETA ODERIZKO GAU ESKORTAK, OTSOEN AURKAKO BABESLEKU ZIREN

Astitzen (Txaldaborroko Eskorta) eta Oderitzen (Maldapako Eskorta), ganadua gauez otsoengandik babesteko Gau Eskorta izeneko eraikuntzak egin zituzten.

Eskortak egiteko, ezinbestekoa zen harriz egindako eta borobil formako paretak eraikitzea (60 cm-ko lodiera eta 1,30 m-ko altuera ingurukoak). Barruan, sarritan, lizarrak landatzen zituzten, ganaduari itzala eta babesgune atsegina eskaintzeko. Gauetan, artzainek edo morroiek kanpoaldean sua pizten zuten, otsoen erasoak ekiditeko.

Ondare Kultur Taldeak aurkitu zituen bi eskortak, eta Iturraskarriren lan bikainari esker, ingurua garbitu eta egokitu dute.

Eskorta hauen historia hurbiletik ezagutu nahi baduzu, sartu **mailope.eus** webgunean.



- ● Errazkingo zikiro-jatearen antolatzaileak: Joxe Martin Martinikorena Baraibar, Julen Buldain Rodriguez, Koldo Martinikorena Matxain eta Jon Oreja Arratibel.

“Zikiro-jatea da Errazkingo tradizio garrantzitsuenetako bat”



Jon Oreja Arratibel, Joxe Martin Martinikorena Baraibar, Julen Buldain Rodriguez eta Koldo Martinikorena Matxain.
Argazkiak: Julen Buldain

Errazkinen duela 25 urte inguru abiatu zen zikiro-jatearen tradizioa, izan ere, 2000. urtean ospatu zen lehenengoz. Hasieran Martin Agirre (Tito) eta Inazio Azpirotz leitzararak aritu ziren zikiroa egiten, herriko batzuen laguntzariekin, haien artean Koldo Martinikorena Matxain. Horrela aritu ziren 2022. urtera arte, leitzar bikotea erretiratu zen arte. Ondoren, lekukoa gaur egungo antolatzaileek hartu zuten: Joxe Martin Martinikorena Baraibar, Julen Buldain Rodriguez, Koldo Martinikorena Matxain eta Jon Oreja Arratibel.

Zer behar da zikiro-jatea antolatzeko?

Koldo: Herri txikietan ezinbestekoa da auzolana. Iraganean, Errazkinen jende gehiago bizi zen, baina belau-naldiz belaualdi, geroz eta gutxiago.

Jon: Ni duela 20 urte sartu nintzen Errazkingo Festa Komisioan, eta due-

la 18 urte hasi nintzen zikiro-jatea prestatzen. Beraz, antolakuntza eta plangintza ezinbestekoak direla ikusi dut. Azkenean, zikiro-jatearen eguna antolatzea, proiektu bat garatzea bezala da; lagun kopurua, janaria, edaria, zerbitzariak, tokia, mahiak, aulkiak, prestakuntza, garbiketa... Egin beharreko lanak ongi antolatzea

eta herriko laguntzaileen artean banatzea beharrezkoa da.

“Herri txikietan ezinbestekoa da auzolana”

Koldo Martinikorena

LEKUNBERRI
TABERNA

948 507 628
lekunberritaberna@gmail.com
Aralar, 19. baxo
31870 Lekunberri
@Lekunberri Taberna

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZEA

634 551 743
infoaralar@gmail.com

Errotaldea 19,
Lekunberri

MARTILLO TXIKI
PERKUSIO ESKOLA

www.martillotxiki.com
679 938 016



Hirugiharra erretzen.

egiten badu, elkartean adibidez, 45 lagun besterik ez gara sartzen, eta estu.

Nondik ekartzen dituzue oinarriko osagarriak?

Julen: Egurra bertakoa izaten da. Aurreko urteko festetan gauzatzen den aizkora erakustaldiko enborra aprobetxatzen dugu. Zikiroa, txistorra eta hirugiharra, Beteluko harategian enkargatzen ditugu.

Jon: Haragiaren eskaria egiteko, pertsona bakoitzeko 750 gramo inguru kalkulatzeko ditugu. Iraganean, herriko artzain bati erosten genizkion zikiroak; orduan bai, guztiz bertakoa zela.

Joxe Martin: Sukaldatzeko unean, inguruko produktuak erabiltzen saiatzen gara. Urazak Betelukoak dira, marrubizko jogurtak Azkaratekoak... Edaria ordea, Baztango enpresa batek kudeatzen du, eta sagardoa Gaztañaga sagardotegikoa da.

"Zikiro-jatearen eguna antolatzea, proiektu bat garatzea bezala da"

Jon Oreja

Noiz ospatzen duzue zikiro-jatea, eta zenbat lagun elkartzeko zarete?

Koldo: Bazkaria, abuztuko lehen asteburua pasa, eta astelehen horretan ospatzen dugu. Aurten, 149 lagun elkartu ginen herriko plazan, gu lau barne.

Joxe Martin: Beti kopuru horien inguruan aritzen gara. Hori da eskaini dezakegun topea.

Jon: Iraganean, larunbatean egiten genuen bazkaria, baina jende gehiegi animatzen zenez, astelehenera aldatzea erabaki genuen. Batez ere estualdiak saihesteko.

Joxe Martin: Eguraldiari dagokionez, azken urteotan nahiko zorte ona izan dugu, baina ez dakigu, ordea, eguraldi txarrarekin nola moldatuko ginatekeen.

Jon: Izan ere, hemen ez dugu estalpean dagoen toki aproposik. Euria

"Prestakuntzari dagokionez, arkumea sei zatitan banatzen dugu"

Joxe Martin Martinikorena

"Haragia etengabe mugitzen dugu, iskinetik azkar hozten baita"

Julen Buldain

KOTXERA
Taberna • Jatetxea • Brasa

948 50 43 52
kotxera13.com

Caserío Benta Zaharra,
Mugiro (Navarra)

Antsonea
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)

NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA

696 658 288
LEKUNBERRI

OGI-BERRI ALTZA

Aralar kalea, 41
Lekunberri

OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

TAXILON

661 202 249
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com

Lontxo Otamendi Artola
Atallu - Araitz

Nola prestatzen duzue zikiroa?

Koldo: Sua goizeko 8:00etan pizten dugu, 9:00etan zikiroa barroteetan zintzilikatu, eta 14:00ak arte hortxe egoten da. Pazientzia behar da.

Jon: 5-6 orduko lana da; haizeak eta egurrak sukaldatzeko denbora asko baldintzatzen dute.

Joxe Martin: Prestakuntzari dago-kionez, arkumea sei zatitan banatzen dugu. Sua erdian egiten dugu, eta zikiro puskak inguruan zintzilikatzen ditugu.

Jon: Haragi zati bakoitzak denbora desberdina behar du sukaldatzeko; zati finak azkarrago egiten dira, eta lodiak, motelago. Horregatik, puska bakoitza bere alboan kokatu, eta be-roaren eta haizearen arabera mugitu behar dira, ongi egosteko.

Joxe Martin: Azala txigortzen hasten denean, biratu eta zulaketa txiki bat egiten diogu, eta barrutik ere ongi egin den begiratzeko. Aurten, adibidez, haizeak asko zaildu zigun lana. Kontuz ibili ezean, zikiroaren azala erretzen zen.

Julen: Haragia etengabe mugitzen dugu, iskinetik azkar hozten baita. 12:00etan puntualki puska guztiak jaisten ditugu eta ontzi handi batean "Kelopario"-arekin nahasten ditugu. Horretarako, ebaki txikiak egiten dizkiogu haragiari saltsa barrura saka-banatzeko.

"Keloparioa" Leitzarrek utzi ziguten saltsa sekretua da, baratxuria eta bestelako osagaiak ditu, eta bi funtzio nagusi ditu: batetik haragia freskatzea

eta hoztea, eta bestetik, gatza haragian sakabanatzea. Guk ez diogu aparteko gatzik botatzen, haragiak saltsatik xurgatzen du behar duen guztia. Ondoren, berriz zintzilikatzen ditugu pusketak, baina alderantziz: lehen haragi zatia buruz gora bazegoen, buruz behera jartzen dugu. 14:30-15:00ak arte horrela mantentzen ditugu zati guztiak. Gero aizkorarekin pusketan banatzen ditugu, "Kelopario" zorrotada bat bota, eta zerbitzatzen hasten gara.

Noiz izaten da otordua?

Jon: 14:00etan puntu puntuan mahaian esertzen gara. Garaiz iristea garrantzitsua da, izan ere, zikiroak bere egosteko puntua dauka, eta hortik pasatzean, lehortu daiteke, eta ez da batere jangarri. Horregatik, garaiz esertzen gara, eta lehenik txistorra eta urdaia jaten ditugu.

Julen: Egia esan, zikiroa 14:30ak arte zintzilikatzen dugu, eta azken pusketak 16:00rak aldera zerbitzatzen ditugu.

"Pazientzia ezinbesteko osagaia da zikiro-jatea prestatzeko"

"Pozik gaude orain arte lortutakoarekin. Azken urteetan primeran joan da"

Joxe Martin Martinikorena



Hasieran, arkumea lurrean zabaldutako txingarretan erretzen.



Jarraian, txingarra elikatzen den bitartean, haragi puskak egosten

Etorkizunean zikiro-jatea prestatzen jarraituko duzue?

Koldo: Julenek jarraituko du, seguru; nik urte asko daramatzat prestatzen, eta... Berari esker jarraitzen dut.

Julen: Leitzarrek joan zirenean ez genuen jarraitzeko asmorik, baina azkenean, 2023an guk bakarrik antolatuko genuen, eta jendea oso gustura sentitu zen. Hori ikusita, jarraitzea erabaki genuen.



CONSTRUCCIONES
ERAIKUNTZAK
CONSTRUCCIONES
URANGA/SAIGÓS, S.L.

TEILATUAK
FATXADAK
ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA
665 708 683
Lekunberri



Construcciones
Gañarbe

ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK

📍 Oztegin kalea 2, Lekunberri
📧 construccionesganarbe@gmail.com

☎ 616 457 540
☎ 636 827 846

Jon: Egun, prestaketetan gu lau aritzen gara: Joxe Martin, Julen, Koldo eta ni. Horrela, eramangarriagoa da. Sua zaintzen ordu asko igaro behar dira, eta gogorra izaten da; horregatik, txandaka aritzea benetan lagungarria da. Julenek eta nik, jarraitzeko asmoa dugu, baina Joxe Martin edo Koldo nekatzen direnean, ordezeko bat bilatu beharko dugu. Bitartean, tradizioa bizitzen jarraituko dugu. Jendea gustura etortzen dela ikusita, ilusioz beteta sentitzen gara.

Koldo: Pazientzia ezinbesteko osagaia da zikiro-jatea prestatzeko. Guztiz kontzentratua egon behar zara. Halaber, auzolana eta gogoak beharrezkoak dira.

Julen: Nire ustez, zikiro-jatea da Errazkingo tradizio garrantzitsuenetako bat. Betidanik ikusi dut, eta zaindu behar dugula sentitzen dut. Baina erantzukizun handia da, sukaldeko lana zaila da eta inoiz ez dakizu emaitza ona izango den.

Joxe Martin: Pozik gaude orain arte lortutakoarekin. Azken urteetan primeran joan da, eta plater garbiarekin amaitzea seinale ona da. Tradizio oso interesgarria izateaz gain, jendea gustura etortzen da zikiroa jatera.

Jon: Zikiroa berezia da; azkenean, oilaskoa edo txuleta urte guztian jan daitezke, baina zikiroa urtean behin jateko aukera, paregabea da. Gainera, lan-taldean belaunaldi ezberdinak gaude, eta aberasgarria da ikuspuntu desberdinak izatea.



Amaitzeko, txingarra poliki-poliki itzaltzen eta zikiroa ongi egosita.



Arkumea egosita.

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA

• 948 19 70 70 •

www.tanatoriosirache.es

BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

CONSULTORIO VETERinario, S.L.

HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:

948 50 43 31

Lekunberri

MALLOAK
ARTZAI GAZTAK

Granja Martikonea, GAITZA, Nafarroa
Jabi, 649 472 057 + lecune, 660 511 097
Malloak.com + info@malloak.com

IDIAZABAL

ARTZAI GAZTA

JAIAK 2025

ARRIBE



ASTITZ



Albaitaritza

baserritarren
zerbitzura

Akaborro Ind., 31860 Iruztun
www.albaitaritza.com · 948 500 343



AZPIROTZ



UZTEGI



19

GORRITI



ODERITZ



Lekunberriko XXIX. Antzinako Azoka arrakastatsua izan zen

Abuztuaren 3an ospatu zuten azoka Plazaola-Mendialdearen ekitaldirik errotuenetako bat izan zen, eta milaka bisitari erakarri zituen. Edizio honetako gai nagusiak ofizio zaharrak izan ziren, eta Lekunberriko kaleetan 65 postu baino gehiago elkartu ziren, toki-ko eta Nafarroa osoko produktu ekologiko eta artisauen eskaintzarekin.

Bertako kaleak eta etxeak mimoz eta ilusioz apaindu zituzten eta parte-hartzaileek Erdi Aroko arropak jantzi zituzten antzinako azoketako giroa birsortzeko asmoz. Goizean, ezkilak jo eta txistulari, trikitilari eta juglareek giroa alaitu eta 12:00etan, banderaren dantza tradizionala ospatu zuten. Ondoren, ibilbide antzetzua izan zen. Egunean zehar, musika ibiltaria, artisautza-postuak, dantzak, erraldoien konpartsa, eta su ikuskizuna izan ziren.

Antzinako Azoka gero eta jasangarriagoa, irisgarriagoa eta inklusiboagoa izan dadin, Plazaolako Partzuergo Turistikoa eta Lekunberriko Udala, Nafarroako Gobernuak Turismo Zuzendaritzaren jarraibideekin bat eginez, hainbat neurri abiarazi zituzten: garraio publikoa sustatu, aparkaleku egokituak eskaini eta "Zaborra 0" kanpaina martxan jarri zuten.



Bandera Dantza.



XXIX. Antzinako Azokako printzesa txikiak.



Antzinako lanbideen antzezlanak.



XXIX. Antzinako Azokako une bat.



XXIX. Antzinako Azokako zaldiak.



Azokaren itxiera eta su-ikuskizuna.

Araitzen euskararen kontrako epaia salatzen kontzentrazioa egin dute

Uztailaren 19an Araizko Udaletxearen aurrean bizilagun talde bat batu zen, euskararen aurkako azken epaia salatzen eta euskarak justizia behar duela aldarrikatzeko.

EAEko udal legeak, elebitasun simetrikoa gainditzeko eta euskara lehenesteko aukera eman zuen. Berriki emandako epaiak atzera bota ditu udal lege honen artikulurik gehienak, eskuin muturreko Vox alderdi espainiarraren eskariz.

UEMAko beste 118 udalerrietan bezala, Araitzen ere epai hau salatu eta euskaldunon eskubideen alde egiteko asmoa azaldu zuten, «Euskararekin bat lelopean», udaletxearen aurrean egindako elkarretaratze bidez.



Araizko Udaletxearen aurrean bizilagun talde bat.
Argazkia: Asier Arsuaga.

“Emakumeok, zuen istorioek balio dute”

Udalbiltzaren Geuretik Sortua bekaren barruan, Larraun, Lekunberri, Betelu eta Araizko emakumeen bizipenetan inspiratutako komiki bat sortzen ari da Uxue Bereziartua Lonbide ilustratzailea.

Horretarako, 55-65 urtetik gorako emakumeen ahotsak bilatu eta bildu ditu; haurtzaroaz, gaztaroaz eta gaur egungo bizi-moduaz hitz egiteko. “Zuen oroitzapenek, zuen bizipenek, eta zuen eguneroko borrokek gure herrien historia aberasten dute. Zuen ahotsak entzun behar dira” azaldu du Bereziartuak.

Hainbat egun igaro ditu gure eskualdean egonaldi artistikoak egiten, ideiak biltzen, eta bertako paisaiak, herritarak, katuak, etxeak eta kaleak ilustratzen.

Uxuek bizitako esperientzia ikus-entzunezko ederren bidez partekatu ditu bere instagrameko kontuan: <https://www.instagram.com/berexiart/> / (@berexiart).



Uxueren ilustrazioa Araizko kale baten.
Argazkia: Uxue Bereziartua.

“Judo ikastaroetan errespetua uztartzen dugu”



Asier Murillo Estatuko Judo Txapelketan.

Asier Murillo Martinezek 22 urte ditu, jatorriz Atarrabiakoa da eta Lekunberri Kirol Elkarteko judo irakaslea da. Murillok, dagoeneko 15 urte daramatza judoa praktikatzeko. Goi mailako kirolaria ere bada, eta -60 kiloko kategorian urrezko domina lortu zuen Estatuko Judo Txapelketan.

errespetuan oinarritutako balioak lantzen dira: diziiplina eta elkarrekin-tza, besteak beste. Gainera, egoera fisiko desberdinak dituzten kirolariak elkartzen dira eta edonork praktikatu dezake.

“Klaseen egitura adinaren arabera orekatzen saiatzen gara”

Nola antolatzen dituzue saioak?

Momentuz bi irakasle gaude, Ainara Garnica Velaz iruindarra eta ni. Bion artean antolatzen ditugu ikastaroak. Klaseen egitura adinaren arabera orekatzen saiatzen gara. Txikienekin jolasen bidez hasten gara, arintasuna, oreka eta oinarritzko mugimenduak lantzen ditugu, eta azken 10-15 minutuetan judo teknika lantzen dugu. Gazteekin, berriz, ia saio osoa judoan oinarritzen da.

Taldeak adinaren arabera banatzen ditugu: alde batetik, 5-10 urtekoak; eta bestetik, 10-16 urtekoak. Gaur egun, osotara 20 haur inguru anima-

Zure kirol ibilbidea nolakoa izan da?

Hamar urte eman nituen Atarrabiako klub batean, eta 15-16 urterekin Larrabidera joan nintzen. Gaur egun, Lehen Hezkuntza ikasten ari naiz Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP), Iruñean. Aldi berean, Goi Errendimenduko kirolaria naiz. As-tan zehar egunero entrenatzen dut; goizez eta arratsalde, eta larunbatetan entrenamendu saio osagarriak egiten ditut.

“Judoa kirol osasungarria da, bai fisikoki, bai psikologikoki”

Zer da judoa zuretzat?

Judoa kirol osasuntsua da, bai fisikoki, bai psikologikoki. Haurrentzat kirol aproposenetako bat dela uste dut. Ongi pasatzeko aukera eskaintzeaz gain, forma fisikoa hobetzen du, eta



Lekunberri Kirol Elkarteko judo ikasleak.
Argazkiak: Asier Murillo.

tu dira parte hartzera.

Gainera, dagoeneko gure bi ikasle Iruñera joan dira ikastera, eta biek entrenatzen jarraituko dute: batek Ainararen klubera, Burlatara, eta besteak, berriz, Larrabiden, Nafarroako Teknikazio Zentroan. Haiek judoa praktikatzeko jarraitzea pozgarria da, eta etorkizunean gure ikasleei aukera berriak bilatzen laguntzeko prest gaude.

“Judo ikastaroetan giro herrikoia eta gertukoa osatzen da”

Nolako giroa izaten da judo ikastaroetan?

Judo ikastaroetan giro herrikoia eta gertukoa osatzen da. Nire esperientzia betidanik hirikoa izan da, eta herri txikietatik datozen ikasleekin bestelako giroa sortzen dela ikasi dut.

“Talde polita sortzen ari gara”

Zergatik animatuko zenuke jendea izena ematera?

Judoak, errespetua uztartzen dituen balio interesgarriak irakasten ditu eta talde polita sortzen ari gara, giro bikainarekin. 2025-2026 ikasturtean, ikastaroak astelehenetik ostegunera izango dira, arratsalde: 16:30etik 17:30era eta 17:30etik 18:30era.

Izen-ematea zuzenean Plazaola Kirol-

gunera egin daiteke. Bestela, idatzi **plazaolakirolgunea@gmail.com** helbidera, edo deitu **948 50 73 77**

telefono zenbakira.

Animatu parte hartzera, primeran pasako dugu eta!



Judo ikastaroetako une bat.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com



Replasa Beti Onak eta Super Amara Bera Bera taldeen arteko partidako une bat.
Argazkia: Juan Antonio Garaikoetxea.

Bera Bera eta Anaitasuna garaile izan ziren Lekunberrin jokaturako Eskubaloit partidetan

Abuztuaren 9an, Lekunberriko Plazaola kiroldegian goi mailako emakumezkoen eskubaloit partida jokatu zen. Replasa Beti Onak eta Super Amara Bera Bera aurrez aurre izan ziren. Azkenean, donostiarrek 22-34 irabazi zuten, atsedenaldira 10-16ko markagailuarekin iritsi ostean.

Abuztuaren 16an, egitasmoari jarraipena eman zioten, oraingoan gizonezkoen goi mailako Helvetia Anaitasuna eta Bidasoa Irunen arteko neurketarekin. Nafarroako taldeak baja ugari izan zituen eta azken minutuetan irundarrek partida irabazi zuten, 32-38 nagusituz.

Araxes Herri Kirol Taldeak bukaera eman dio 2025eko herriz herriko txapelketari

Absolutuan ezin izan dute finalean sartu, baina gustura gelditu dira egindako lanarekin. 21 urtez azpikoekin, berriz, hiru jardunaldi egin ondoren, bigarren postua lortu dute. Parte-hartzaile guztiei beren esker ona adierazi diete.



Araxes Herri Kirol Taldea.
Argazkia: Araxes Herri Kirol Taldea.

Iñigo Lasartek eta Guratz Azpirozek irabazi zuten Triku Trail lasterketa

Bero handia izan zen aurtengo Triku Trailen, eta antolakuntzak lasterketa ordubete aurreratu zuen. 384 korrikalarik hartu zuten parte, Etxarri Aranazko kanpina erdigune izan zuen proban. 10 kilometroko gizonetzkoen absolutuan, Lekunberriko Iñigo Lasarte García nagusitu zen 48:55 minutuko denborarekin; emakumezkoen 10 kilometrokoan, berriz, Uitziko Guratz Azpiroz Beunza izan zen garaile, 1:02:14ko denborarekin.



Iñigo Lasarte García Triku Trail lasterketako helmugan.
Argazkia: Triku Trail.




Guratz Azpiroz Beunza Triku Trail lasterketako helmugan.
Argazkia: Triku Trail.

Hainbat ikastaro berri eskaini dituzte Araitz eta Betelun

Egunerokotasunean kirolari tartetxo bat gorde nahi dion pertsona ororentzat jardueren eskaintza zabala aurkeztu du Kirol Mankomunitateak Araitz eta Betelun.

- **Pilates**, astelehen, asteazken eta ostiraletan: 16:00etatik 17:30era.
- **Entrenamendu funtzionala**, astearte eta ostegunetan: 19:00etatik 20:00etara (ikastaro berria!).
- **Mantenu gimnasia (+65)**, astelehen eta asteazkenetan: 10:00etatik 11:00etara.
- **Yoga**, astearte eta ostegunetan: 17:15etik 18:45era, eta asteazkenetan 9:30etik 11:00etara.

Izen eman nahi baduzu, deitu **649205310** telefono zenbakira, idatzi **kirolmankomunitatea@gmail.com** helbide elektronikora, edo aurrez aurre Araitzko eta Beteluko udaletxeetan egin.



Araitzko ikastaroetako kirol-materiala.

Hegazkina galtzen dudanaren amesgaiztoa

Hegazkina, trena edo autobusa. Gutako askok izan dugu inoiz amesgaizto hori. Hori zen, gutxi gorabehera, Yolanda Alonso psikologoak iaz idatzitako nobelari jarri zion izenburua. Liburuan bere familiaren pasadizoren bat tartekatu zuen eta familia konstelazioa eratu omen zuen bere lanean, editoreen ustetan.

Yolandak astebete pasa du aurtengo uztailan Gaintzan eta hainbat korapilo landu ditu familia konstelazioen tresnaren bitartez. Aste berean Holanda, Irlanda, Euskal Herria eta beste zenbait tokitako pertsonak landu dituzte antzeko korapiloak. Ez dira izan Gaintzara urrutitik etorritako bakarrak, arrazoa beste bat izan bada ere. Izatez, ekainaren bukaeran Gaintzako Ainhoa eta Ghana-ko Jeffek bildu zituzten Mailoaren azpian Afrika, Australia, Ingalaterra, USA, Madrid eta Nafarroako ahaide eta lagunak. Tradizio eta kultura desberdinek bat egin zuten Ainhoa eta Jeffen maitasun adierazpena ospatzeko. Ezkontza honetan ezkontide bakoitzak bere familia eta bestearen familia ondratu, ondoren apaizaren bedeinkapena jaso eta segidan ahai-deen bihotz hitzak entzun zituzten. Ezkontideek elkarri esandako guztia ongi pentsatuta zegoen eta betez gero, familian korapilo berririk ez da sortuko. Badakit hau erronka handia dela edozein bikoterentzat baina oinarriak jarri zituen gure bikoteak Araitzen maitasunaren hegazkina ez galtzeko.



Hitzaspertuan



●● Agurtzane Altuna

Enantzue

Hara ba, badie uda. Askontzako opor usaieko garaie izatea uda; asko o gutxi denok ateatzen dulako eun pasan bat, otordu berezin bat o eskapadatxon bat itteko beta; ta aukera horri enantzuik atea bazaio, pozik.

Uda garaie aproposa izatea aurreneko lantxo hoik proatzeko re. Bateko fabrike, besteko ostalaritza, ume zaintza eo dendari. Eltzea suten jarritakoan proatzeala esateo esaera zahar batek, ta jendea re halatsu.

Badee batee balio ez duen eltzeak, batee enantzuik bareko jendea. Badee batee bistik barekoak, lanai nondik heldu ikusten ez duenak o ikusita re ahalik ta gutxina itten duenak. Badee, mañe haundiik ez, baño intentzio ta gogo guztie jartzeuenak; haikin bada esperantzaik, iñen porioan igual hartuko die ta tamañe. Ta bada enantzuik bareko jendeakin oso nerbioso jartzen den jendea re. Enantzu gutxikotzat hartu ditteke kafea ta pintxoat eskatu ta ateatzen bi ordu pasatzen dittona, o kafesne erdie kijaratik kanpoa ekartzen dona, eskuek itten dion dardarizoakin. Kamarak betetzen hasi ta botille guztik iraultzen zaizkiona, denak alde berera jartzeatik. Enantzu haundikoa, berriz, behin esplikatu eta entenditzen don hue, o ikusi hutseekin lanai ekitten dion hue. Taberna lepo daun momentu hoitan bixi-bixi ibiltzen duen hue. Bezeroai atsegin itten dien hue, eo okertzen denean irripar batekin eskusatzen den hue.

Baño, gauze peligerosoa re izan datteke enantzue, barran beste aldean daunak jartzen badio neurrie. Kostaldeko taberna batean lanean aittu den gatzetxo batek irratin indako testigantzak eman dit berriki arreta. Ustez oporretaa ta lasai eoteko joaten deen hoik denak izaten omen dee pazientzi gutxina izaten duenak, presaka dena "hemen eta oain" nahi izaten duenak. Beirune gehixau behar omen litzeke aurreneko lan hoitan atreittu deen gazte hoikin, iñor ez delako ikasita jaiotzen.

Etzetik kanpo daillen espezie horri beire jarrita, ze-pentsa eman ziten ustezko enantzu gutxiko gazte harren esanak. Ze langile klase gea, ta ze nausi /bezero klase bihurtzen gea arrotz gailtzenean. Badau ze ikusi eta ze ikasi pranko baztarretan! Osagai eokik bota ezkeo zopa earra ez al da ba ateatzen, eozin dela re eltzea?

●● Lekunberriko telefono kabina zaharrean liburutegi txiki bat egin dute.

Lekunberriko telefono kabina zaharrak liburuak deia jaso du



"Liburu Truke Leku" Lekunberriko telefono kabina zaharra kanpotik.

Lekunberriko Aralar Kanean dagoen telefono kabina zaharra "Liburu Truke Leku" izeneko liburutegi txiki batean bilakatu dute. Iraganean, herritarrek hitz egiteko erabiltzen zuten gailu hura. Gaur egun, liburuak trukea eta irakurzaletasuna sustatzeko gune bat da. Ekimenak Lekunberriko Udalaren babesa jaso du eta herriko hainbat lagunen borondatez gauzatu da.

27

Telefonoaren historia XIX. mendearen erdialdean hasi zen. Antonio Santi Giuseppe Meucci italiar asmatzailea izan zen, teletrofona —geroago telefono izenarekin ezaguna— sortu zuena. Gero, telefono kabinak ireki zituzten, eta Nafarroan, lehen kabina publikoa 1967an zabaldu zuten, Iruñean.

Makina haien funtzionamendua eta erabilera emakume askoren lan isilari esker gauzatu zen. Lehen urteetan, telefono-kabinetatik egindako deiek operadore baten bitartez bideratzen baitziren, eta langile horiek, ia salbuespenik gabe, emakumeak ziren. Horrez gain, herri eta hiri txikietan, emakumeak arduratzen ziren kabinak irekitzeaz, garbitzeaz eta erabiltzaileei laguntzeaz. Dakigunez, Estatu Batuetako Emma Mills Nutt (1860–1915) izan zen munduko lehen telefonía-operadorea, eta gaur egun, irailaren 1ean ospatzen da bere eguna. Lanbide zorrotza zen, diziplina ia militarra

izan arren, gizartean berdintasuna lortzeko bide luzean emandako pausu garrantzitsua izan zen.

Hainbat hamarkadetan telefono kabinak espazio publiko garrantzitsuak izan ziren, eta herritarrek telefono kabinak zaindu eta errespetatzen zituzten. Izan ere, txanpon baten truke, munduko beste muturrean zegoen norbaitekin hitz egin zezaketen. Gaur egun, ordea, telefono mugikorraren hedapenaren ondorioz, Nafarroako Gobernuak ia kabina gehienak erretiratu ditu.

Zorionez, Lekunberriko kabinak zutik dirau, eta barruko apaletan dauden liburuak edonork utzi edo hartu ditzake. Gainera, euskaraz, zein beste hizkuntzetan dauden liburuak topatu daitezke aniztasuna eta irakurketa ohiturak uztartzen dituen kabina kuttun hartan. Halaber, beste herri batzuetan ere antzeko ekimenak garatu dituzte, hala nola; Otsagabian.

Telefono kabinak desagertzen ari diren arren, sortutako aztarna kulturalak bizirik dirau. Horrenbestez, proiektu honek, iraganeko makina erabilera berri batekin berpiztea lortu du. Ondorioz, garai bateko 25 pezetan orde, oraingoan, liburuak kabinan sartzean, jakinduria, artea, kultura, irakurketa eta hezkuntza partekatzen eta sustatzen dira.



"Liburu Truke Leku" Lekunberriko telefono kabina zaharra.

● ● Arkaitz Zapata Otxandorena (Mugiro) eta Naiara Juanena Ayestaran (Iribas)

“Agur, Hatortxu!”



Naiara Juanena, Arantxa Balenziaga, Amets Soroa eta Olatz Martirena, Larraun eta Lekunberriko txandalariak.
Argazkia: Naiara Juanena.

Antolatzaileek adierazi dutenez, lau helburu jarri zizkioten azken edizioari: “Hatortxuk agur esatea, urte luze hauetan bidelagun izan diren guztiei eskerrak ematea, auzolanaren aldarria lau haizetara zabaltzea eta ospakizun erraldoi bat antolatzea”. Orain, Aske jaialdiari pasa dio lekukoa. Abenduaren 27an izango du lehen edizioa Atarrabian.

Horren harira, Larraun, Lekunberri, Aritz eta Betelutik hamarnaka lagun joan ziren laguntzera eta jaialdiaz gozatzera. Horietako bik; Arkaitz Zapata mugiroarrak eta Naiara Juanena iribastarrak, haien bizipenak kontatu dituzte.

25.000 lagunez inguratuta agur esan zuen Hatortxu Rock jaialdiak. Egindako lanaren ostean, nekatuta, baina bihotzak pozez beteta amaitu zuten 30. eta azken jaialdia. Uztailaren 14tik 27ra eman zioten merezitako agurra Lakuntzan, eta aldarrikapenerako uneak izan ziren jaialdiak iraun zuen egunetan; baita kantatzeko, dantzatzeko, gozatzeko eta ospatzeko ere. Auzolana izan zen tresna nagusia. Izan ere, 7.000 txanda baino gehiago betetzeko erronka ez zen erraza izan, baina herritarrek ez zuten hutsik egin.

Zer da Hatortxu Rock, eta noiz eza-gutu zenuten lehenengo aldiz?

Naiara: Hatortxu beti izan da gure aletxo eskaintzeko aukera, euskal presoen eta haien senitartekoen alde. Ni txikitatik joan naiz, hasieran familiarekin, eta 14-15 urtetik aurrera beti lagunekin. Egia esan, urtero izan gara “juergalari”, baina aurten, azkena zela jakinda, txanda egitea erabaki genuen.

Arkaitz: Hatortxu elkartasun-egun bat da. Helburu berarekin lanean ari den hainbeste jende ikustea ederra da. Nire lehen Hatortxua, Berriozarren izan zen, 15 urterekin. Txanda bat egiteko aukera izan nuen eta urte hartan, elurte izugarria izan zen. Orduan ez zeuden gaur egungo makinak, eta 06:00etatik 13:00ak arte, elurra egiten zuen bitartean, hesien hormigoizko harriak jasotzen aritu ginen. Hortik aurrera, beti izan naiz “txandalari”, baina aurten, “juergalari” izatea erabaki nuen. Azken urte hau beste modu batean bizi nahi nuen.

Orokorrean, betidanik joan da gure eskualdeko jendea laguntzera?

Naiara: Bai, betidanik. Azken urte honetan; Larraun, Lekunberri, Aritz eta Beteluko adin guztietako herritarrak elkartu ginen. Hortaz, nik, nire kuadrillako beste hiru lagunekin segurtasun-txanda egin nuen. Larunbatean izan zen, 13:00etatik, arratsaldeko 19:30ak arte. Jende asko zegoenez, taldeka banatu eta kanpalekuan egon ginen,



Lucia Etxeberria, Leire Lopetegi eta Mattie Garaikoetxea. Goizueta eta Beteluko txandalariak.
Argazkia: Leire Lopetegi.



BERTAKO HARAGIA

Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak.

Ettxera eramateko zerbitzua ere eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7
31890 BETELU

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com



German Lasarte

HARATEGIA

Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

SAN MIGUEL

gasolindegia



Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu



urrutia
enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI



Gorka Urbizu Hatortxu Rock jaialdian.
Argazkia: Hatortxu Rock.

sarrerak eta irteerak kontrolatzen.

Arkaitz: Ni, duela 14 urte etorri nintzen Mugirora bizitzera, eta azken hamar urteetan, Hatortxuko sukaldoko lanetan aritu nintzen Larraun eta Lekunberriko biztanleekin. Talde hartan, adin guztietako herritarrak elkartu ginen eta harreman onak sortu genituen.

Nolako giroa bizi duzue Lakuntzan, azken edizioa zela jakinda?

Naiara: Larunbatean eta igandean giro apalagoa izan zen, baina ostiralean jende asko elkatu zen; harrিতuta gelditu nintzen. Gainera, kontzertuak oso onak izan ziren, egunero bazen norbait arreta pizten zuena. Horrenbestez, furgoneten gunean, hasieratik jaialdian parte hartu duten gizon eta emakume ugari zeuden. Amaitzeko, azken egunean, giro nostalgikoa baina ederra sortu zen.

Arkaitz: Bai, ostiralean jende piloa zegoen eta jaialdi osoan zehar betiko giro ederra izan zen.

Gazteei Hatortxu Rock jaialdiaren espiritua transmititu zaie?

Naiara: Bai. Gainera, aurtengo Hatortxu Rock jaialdiko egitaraua oso zabalak izan zen, eta herrian, haurrentzako ekitaldi ugari gauzatu ziren.

Arkaitz: Gazte ugari ikustez gain, antolaketa bikaina izan zen. Urtebete lehenago hasi ziren dena antolatzen, eta lan horren guztiaren emaitza zoragarria izan zen.

Orain Aske jaialdia abiaraziko da. "Txandalari" izaten jarraituko duzue?

Arkaitz: Noski. Euskal Herrian elkarlana ezinbestekoa da. Nik, ez dut beste pareko ekitaldirik ezagutu. Hatortxuk dinamika bat sortu du eta herri osoa inplikatzera lortu du. Hori galtzen bada, akabo.

Naiara: Bai, guztiz ados. Gainera, aurtun kanpoko jende asko etorri da: katalanak, iparraldekoak... Haien esanetan, Hatortxu gure izateko

moduaren isla da. Hori galtzea gure nortasunaren zati bat galtzea izango litzateke. Horrelako egitasmoetan denok gara beharrezkoak. Hatortxu Rock, izugarria izan da.



Ekitaldi nagusian ospatu zen oreka ikuskizuna.
Argazkia: Hatortxu Rock.



TALLERES GOÑI
CHAPA Y PINTURA




- IBILGAILU GUZTIEN TXAPA KONPONKETA ETA MARGOKETA
- BANKADAKO LANAK
- ERROTULAZIOAK
- LLANTA BERRITZEAK
- JASO ETA ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA
- KRISTAL ALDAKETAK
- BARRUKO ETA KANPOKO GARBIKETA
- ADEITASUN AUTOA DOAN

680 859 938 · 948 500 166 · CHAPIGO@GMAIL.COM



Komikia: Aitor Balda Irungarai (Lekunberri).

PUBLIZITATEA MAILOPEN

Mailope aldizkaria - 660 476 041

info@mailope.eus



serigrafia
diseinua
estanzak

kaixo@gko.eus 608 228 234



**Euskara
eroso ikasi
eta bizi**

aek euskara
praktikoa

Larraungo AEK

EUSKARA-IKASTAROAK

- MAILA GUZTIAK
- AZTERKETAK prestatzeko ikastaroak
- (B1, B2, C1/EGA, C2)
- Taldea edo autoikaskuntza
- Goizez eta arratsaldez

948 604 704 edo 607 622 102 | larraun@ae.eus

Izena emateko azken eguna irailaren 22a

Artzanegi 6, Lekunberri

DIRULAGUNTZAK

Iparaldeko Euskara Mankomunitateak diruz lagundutako ikastaroak

AGENDA

IRAILA

- 6- Matarock musika jaialdia, arratsalde. Ibarberri eskolako patioa, Lekunberri.
- 7- Diskgolf Txapelketa: Aralar Erronka. Artzanegi, Lekunberri.
- 8-12- 17:00-18:30 Sormen Tailerrak. Haurrentzat: 5 urtetik gora. Izen-ematea beharrezkoa. Mitxausenea, Lekunberri.
- 9- 17:30 Donibane Zinema. Gizarte Etxea, Lekunberri.
- 9- Martillo Txiki Perkusio Eskolaren ikasturte hasiera (2025-2026). Informazio gehiago nahi baduzu, deitu 679938016 telefono zenbakira (Igor de Castro). Lekunberri.
- 12- 19:00 Kontzertua: Madame Birrots. Intza.
- 12- 14- Etxarriko Festak.
- 12- 14- Ttuturreren mendi irteera. Panticosa-Sallent. Hemen informazio gehiago: <https://labur.eus/Mendirteera>
- 13- 22:00 Kaña Fest III musika kontzertuak: Severance, Elbereth, Impulso Canibal eta Ajariguan. Lekunberri.

berriko Printza. Sarrera 12 €.

14- Breathwork + Gongo saioa. Arnasketaren bidezko autoezagutza eta aldaketa saioa. Prezioa: 60 €. Saioaren gidariak: Haritz (659 059 935), Irati (666 457 600) eta Ainhoa (699 189 725). Aldazko eliza.

19-21- Arruizko Festak.

20- Kablearen Eguna.

26-29- Uitziko Festak.

27- Arbola Jaialdia. Azkarate.

27-29- Baraibarko Festak.

29- San Migel Eguna.

***KONTZEJUETAKO FESTEN EGITARAUA ATZEKALDEAN.**

Historia gustuko duzu?

2025-2026 ikasturtean Aitor Pescador Medranok emango duen "Navarra, historias de la Historia III" ikastaroa abiatuko da Lekunberriko Udaletxeko Batzar Aretoan. Ikastaroa urritik otsailera egingo da (19:30ean). 12 saiotan zehar Nafarroako historiaren pasarte interesgarriak jorratuko dira. Gaztelaniaz izango da eta izen-emateak irailaren 30a baino lehen egin behar dira kultura@lekunberri.eus helbide elektronikora idatziz, edo 621150455 telefono zenbakira deituz. Prezioa 20 eurokoa izango da eta plazak mugatuak dira.

Txupinazoaren jaurtitzalea proposatu nahi duzu?

- Pertsona edo talde bat proposatu behar da. Hautatutako pertsonak harreman zuzena izan behar du Lekunberriekin.
- Proposamenean, pertsona edo taldearen izena azaldu behar da, baita hautaketa arrazoia-zen azalpen laburra ere.

Epea irailaren 1etik 4ra luzatuko da. Ondoren, herri bozkaketa iragarriko da, irailaren 15etik 18ra ospatuko dena.

Lekunberriko 2025eko festetako kartel lehiaketa

2025eko Lekunberriko festen irudia izango dena aukeratzeko epea martxan jarri du Lekunberriko udalak. Irailaren 1etik 4ra bitartean, Lekunberriko erroldatuta dagoen edonork parte har dezake. Bozkaketa Mitxausenean izango da.

INTZA

Irailak 5, ostirala

19:00 Txupinazoa
20:00 Patata tortilla lehiaketa
21:30 Herri afari autogestionatua
Ondoren, bakarrizketak: Manex Astigarraga, Asier Galarza eta Esti Curiel
02:00 DJ Alex Mapi

Irailak 6, larunbata

11:30 Puskabiltza
18:00 Herri kirolak
Ondoren, txokolatada
19:00 Mus txapelketa
21:30 Herri afaria (sarrerak Maite harategian eta Surtidorean)
01:00 White Carters taldea
2:30 DJ Izzei & Eneko

Irailak 7, igandea

12:00 Toka txapelketa
17:30 Pintxoak, trikitilariak eta ume jolasak

Irailak 8, astelehena

10:00 Meza
Ondoren, hamaiketako Errota Elkartean

Puzgarriak egunero egongo dira!

ETXARRI

Irailak 12, ostirala

19:00 Suziria
19:30 Trikitia
20:30 Giro musikatuan dantzalekuan
21:30 Pintxo afaria
22:30 Kontzertu akustikoa Maialen abeslariarekin (bitartean mohitada)
23:30 80. Hamarkadako musika (bitartean mohitada)
01:00 DJ Managua

Irailak 13, larunbata

11:30 Bordetara Oinez
12:00 Erronda bordetan
15:00 Erronda herrian zehar
17:00 Puzgarriak eta jolasak
20:30 Dantzaldia Muxutruk taldearekin
22:00 Pintxo afaria
23:30 Dantzaldia Muxutruk taldearekin
Ondoren DJ Oixani

Irailak 14, igandea

12:00 Pilota partidak
14:00 Herriko bazkaria
17:00 Haurrentzako jolasak
17:30 Mus txapelketa

BARAIBAR

Irailak 27, larunbata

10:45 Festa hasiera
11:00 Erronda etxez etxe trikitilari eta bertsolariekin
18:00 Trikidantz
21:00 Zezen suzkoa
21:30 Herri Afaria
Ondoren, bingoa

Irailak 28, igandea

11:00 Tortilla patata lehiaketa
Ondoren, tortilla dastaketa
16:30 Puzgarriak eta jokoak
17:00 Mus txapelketa
18:00 Txokolatada
20:30 Barrikotea
21:00 Zezen suzkoa

Irailak 29, astelehena

10:45 Ezkil jotzea
11:00 Meza nagusia
12:00 Hamaiketako
12:30 Aizkolariak
16:30 Pilota partiduak
20:00 Festa amaiera

Trikitilariak:

Ekhi Irribarria eta Josu Albisu

Bertsolariak:

Julio Soto eta Jexux Mari Irazu

Aizkolariak:

Eneko Saralegi, Txomin Amundarain, Julen Kañamares eta Ibai Soroa